



# **AGENDA 21eko TOKIKO III. EKINTZA-PLANA**

**LEGAZPIKO UDALA**

**Epealdia: 2008-2014**



## SARRERA

“Guztion partehartzearekin, iraunkortasunaren bidean”

Joan den 1998an Legazpiko Udalak Aalborgeko Karta onartu zuen eta orain aurkezten dugun dokumentu hau urte hartan hasitako bidearen emaitza da. Bide horretan bi Ekintza-plan garatu ditugu, 2001ean eta 2005ean, eta orain urrats bat gehiago eman nahi dugu gure udalerriko Tokiko hirugarren Ekintza-plana bideratuz.

III. Ekintza-planak gauza berri bat dakar: marko teoriko bat hain zuzen ere. Marko hori **iraunkortasunaren hiru dimentsioen** gainean udal politikariek eta udal departamentu desberdinetako teknikariek egin duten hausnarketaren emaitza da. Bestetik, iraunkortasunaren hiru dimentsioak zehaztu ditugu eta Legazpira egokitu. Hausnarketa hori ondorengo agirietan jaso da. Agiriok **I. Eranskinean** sartu ditugu.

- *Iraunkortasunaren ingurumen alderdia Legazpin.*
- *Iraunkortasunaren gizarte alderdia Legazpin.*
- *Iraunkortasunaren ekonomia alderdia Legazpin.*

Horrezaz gain, Legazpiko Tokiko III. Ekintza-plana egitean ondorengo printzipioetan oinarritu gara:

- Aalborgeko konpromisoak hartu dira jarduteko oinarri gisa.
- Abiapuntu gisa, II. Ekintza-plana eta haren ebaluazioaren emaitzak hartu dira.
- Tokiko Agenda 21ean, iraunkortasuna helburu izanik, Legazpiren etorkizuneko itxura perfilatzeko printzipioei buruz egin den hausnarketa jaso da. (**II. Eranskina**)
- Eusko Jaurlaritzak klimaren aldetari buruz eta ingurumen alderdia aintzat hartuta kontsumo iraunkorrari buruz ezarri dituen lehentasunak hartu dira eta Ekintza-planaren bi lerro estrategikoetan jaso dira. Modu berean, aintzat hartzen dira 2007-2010 operako Euskadiko Autonomia Erkidegoko Ingurumenari buruzko II. Esparru-programan jasotako helburu estrategikoak.



- Aurretik egin diren hausnarketa-prozesuak eta lerro estrategikoak, programak eta ekintza zehatzak diseinatzeko lana, ondorengo **parte-hartzearekin** egin ahal izan da:
  - Agenda 21eko herritarrak parte-hartzeko Foroa.
  - Udaletxean ordezkaritza duten alderdi politiko desberdinetako ordezkariak.
  - Udal politikariak eta udal departamentu desberdinetako teknikariak. Alkatetza, Obra eta Hirigintza, Kultura, Euskara, Kirolak, Gazteria, Hezkuntza, Gizarte Zerbitzuak, Nekazaritza, Idazkaritza, Kontu-hartzailetza, Informatika, Herritarrentzako Arreta-zerbitzua, Industria Enplegua eta Merkataritza, eta Agenda 21.
  - Udalaz gaineko erakundeak: Lenbur, Uggasa, Sasieta, Ugisa, Merkataritzari laguntza teknikoa eskaintzeko bulegoa, Gipuzkoako Ur Kontsorzioa, Urola Garaia mankomunitateko Berdintasun saila.

Halaber, III. Ekintza-plana eman duen hausnarketa-prozesuaren barruan, planaren izaera eta funtzioen gainean eztabaidatu da **herritarrak parte-hartzeko Foroan** eta **III. Eranskinean** sartu den ondoko dokumentua osatu da: *Agenda 21eko herritarrak parte-hartzeko Foroaren izaera eta funtzioak eta Legazpiko Udalarekin duen harremana.*

Gauzatxo bat azpimarratu nahiko genuke: batetik, Tokiko Ekintza-plan honek Aalborgeko 10 konpromisorekin lotura duten ekintzak garatzen dituela.

Aalborgeko konpromisoa	Ekintza-kopurua (III. Plana)
1-. Gobernatzeko erak	10
2-. Iraunkortasuna helburu duen udal kudeaketa	14
3-. Orogen natur ondasunak	30
4-. Kontsumo eta bizitzeko era arduratsuak	13
5-. Hirigintzaren planifikazioa eta diseinua	8
6-. Mugikortasuna hobetzea eta trafikoa murriztea	11
7-. Osasuna sustatzeko ekintzak	3
8-. Tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra	16
9-. Berdintasuna eta justizia soziala	23
10-. Bertakotik mundu mailakora	40



Bestetik, udal departamentu eta udalaz gaineko erakunde guztien laguntza jasoko dugu Plana garatzeko eta implementatzeko lanean.

Udal departamentuak eta Udalaz gaineko erakundeak	Ekintza-kopurua (III. Plana)
Hirigintza eta zerbitzuak	31
Kultura	2
Industria	3
Euskara	1
Kirolak	4
Gazteria	4
Gizarte Zerbitzuak	8
Nekazaritza	10
Idazkaritza	2
Alkatetza	4
Agenda 21	37
Uggasa	10
Sasieta	8
Lenbur	2
Ur Kontsortzioa	6
Mankomunitatea (Berdintasuna)	12



Tokiko Ekintza-planaren kudeaketarekin zerikusia duten elementuei dagokienez, honako hau azpimarratu nahi dugu:

- Planak 2008-2014 epealdia hartuko du.
- Plana erreminta kudeatzaile egokia izan daitekeela bultzatu nahi izan da. Planak Legazpi herriaren lehentasun estrategikoei erantzuten die; horrela, udaleko gainerako planak aztertu (Euskara, Berdintasuna, mugikortasuna,...) eta horietatik udalerrirako estrategikoak izan daitezkeen ekintzak eta programak jasotzen ditu.
- Urtero ezartzen den lan metodologiarekin aurrera eginez, Plana zein neurritan bete den ebaluatuko da. Horrela, Plana berrikusi egingo da eta ekintza berriak sartuko dira eta/edo, arrazoi desberdinak tarte direla, aurrera atera ezin daitezkeen ekintzak baztertu egingo dira.
- Legazpiko Tokiko Hirugarren Ekintza-plana indarrean egongo den epean, urtero garatuko diren ekintzen programa bat egingo da. Bertan, urtean zehar inplementatuko diren ekintza zehatzak eta haien aurrekontua jasoko dira, eta ekintzen jarraipena egiteko eta haien eragina neurtzeko adierazleak ezarriko dira.

-----



## AURKIBIDEA

### ARLO ESTRATEGIKOAK

### ORRIA

<b>1- INGURUNEA ETA BIODIBERTSITATEA GORDETZEA ETA SUSPERTZEA .....</b>	<b>1</b>
<b>2- KLIMA BABESTEKO ESTRATEGIAK EZARTZEA, MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO EREDUAK SUSTATUZ ETA ENERGIAREN KONTSUMO ARRAZIONALA BULTZATUZ .....</b>	<b>13</b>
<b>3- KONTSUMO ETA EKOIZPEN ARDURATSUAK SUSTATZEA .....</b>	<b>22</b>
<b>4- HIRI-EREMUAREN KALITATEA HOBETZEA AHALBIDETUKO DUEN HIRIGINTZA HARMONIKOAREN ALDE EGITEA .....</b>	<b>27</b>
<b>5- HERRITARRAK PARTE HARTZEAN ETA BALOREETAN HEZTEKO PROGRAMETAN INPLIKATZEA, ETA LEGAZPIARREN IDENTITATEA GARATZEA .....</b>	<b>32</b>
<b>6- BIZI-KALITATEA ETA JUSTIZIA SOZIALA BULTZATZEA .....</b>	<b>38</b>
<b>7- HERRIKO EKONOMIA BIZIA ETA INGURUMENA KALTETU GABE ENPLEGUA BULTZATUKO DUEN EKONOMIA SUSTATZEA .....</b>	<b>42</b>
<b>8- IRAUNKORTASUNA LORTZEKO UDAL KUDEAKETARAKO ERAGINKORRAK DIREN PROGRAMAK BULTZATZEA .....</b>	<b>50</b>



## LEGAZPIKO TOKIKO AGENDA 21

### EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

#### 1- INGURUNEA ETA BIODIBERTSITATEA GORDETZEA ETA SUSPERTZEA

##### 1.1. LEGAZPIKO NATUR ONDAREA BABESTEVA ETA ZAINZTEA.

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<b>1.1.1. Aizkorri-Aratz Parke Naturala babestea eta zaintzea</b>  Gipuzkoako Foru Aldundiari Aizkorri-Aratz parkea kudeatzeko organoa sortzeko bidea bizkor dezala eskatu. Udalerriak modu eraginkorrean parte har dezala Erabilera eta Kudeaketa zuzentzeko Planaren zehaztapenean eta betetzean. Gure Udala "Aizkorriko Parke Naturalerako atea" izan dadila bultzatu. AIZKORRIN BARRENA mendi martxa	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Ertaina  <b>Altua</b>	UD/ALK		-
<b>1.1.2. Gorostiaga mendia babestea.</b>  Gorostiaga mendia babesteko neurri zehatzak aztertu, Hiri-antolamendurako Plan Orokorrean jasotakoaren arabera.	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Ertaina  <b>Ertaina</b>	UD/NEK		-
<b>1.1.3. Urtatzako urtegia: urtegiaren ingurunea berreskuratzeko eta balioesteko aukerak aztertzea.</b>  Ingurune horrek duen balioa suspertzeko eta zabaltzeko egin daitezkeen ekintzak edo proiektuak aztertu.	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Ertaina  <b>Altua</b>	UD/AL21		-

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 1- INGURUNEA ETA BIODIBERTSITATEA GORDETZEA ETA SUSPERTZEA

#### 1.1. LEGAZPIKO NATUR ONDAREA BABESTEVA ETA ZAINZTEA.

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<p><b>1.1.4. Urola ibaia babestea eta, era berean, natur baliabide horren balio estrategikoa zabaltzea.</b></p> <p>Ibaia babesten duten udalaz gaineko araudiak daude, hala nola, Eusko Jaurlaritzak idatzitako Euskadiko Autonomia Erkidegoko ibaiak eta errekek babesteko lurraldearen arloko plana.</p> <p>Modu berean, Foru Aldundiaren eskumenekoak dira baliabide hidraulikoak, ur-emariaren kontrola, uraren kalitatea, gunekutsatzaileen kontrola,....</p> <p>Udalak aipatu erakunde horiekin lan egiteko moduak azter ditzake, beti ere ibaiaren ekosistemaren kalitatea hobetzeko helburuarekin</p>	□ □	Ertaina	UD/NEK		-
		Ertaina			
<p><b>1.1.5. Gerriko berdea: Hiri-antolamendurako Plan Orokorrean proposatutako gerriko berdea (Legazpiko hirigunearen inguruan 100 metro) egiteko baliabideak jartzea.</b></p> <p>Gipuzkoako Foru Aldundiari gerriko hori kontuan har dadila eskatu, basoak landatzeko baimenak emango dituenarako.</p>	□ □	Ertaina	UD/NEK		-
		Altua			
<p><b>1.1.6. Bideak eta bidezidorrak mendian zehar: bideak mantentzeko jarduketak bultzatzea (gutxienez lurzorua publikotik igarotzen direnetan).</b></p> <p>Gordetzeko lehentasuna izango duten bideen inbentarioa egin.</p> <p>Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jarri jarduketak horiek garatzeko laguntzak lortu ahal izateko</p>	□ □	Ertaina	UD/NEK		-
		Ertaina			

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 1- INGURUNEA ETA BIODIBERTSITATEA GORDETZEA ETA SUSPERTZEA

#### 1.1. LEGAZPIKO NATUR ONDAREA BABESTEVA ETA ZAINZTEA.

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<p><b>1.1.7. Natur eremuak garbitzeko eta berreskuratzeko ekintzak gauzatzea</b></p> <p>Lehentasuna duten natur eremuak berreskuratu, horretarako hainbat talderen laguntza bilatuz (elkarteak, bizilagunak....).</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Ertaina	UD/AL21		-
		<b>Ertaina</b>			
<p><b>1.1.8. Herrialdea zaintzeko akordioak sustatzea.</b></p> <p>Administrazioaren eta jabe pribatuen artean herrialdea zaintzeko hitzarmenak bultzatu, udalerriko natur ondarearen Inbentarioan balore eta ezaugarri bereziak (flora, fauna,...) dituzten Legazpiko eremuak babestu eta zaintzeko helburuarekin.</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Luzea	UD/NEK		-
		<b>Altua</b>			

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 1- INGURUNEA ETA BIODIBERTSITATEA GORDETZEA ETA SUSPERTZEA

#### 1.1. LEGAZPIKO NATUR ONDAREA BABESTEVA ETA ZAINZTEA.

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<p><b>1.1.9. Legazpiko baso- eta oihan-eremuak modu iraunkorrean kudea daitezela sustatzea.</b></p> <p>Administrazioaren, basozainen elkarteen eta/edo jabe pribatuen artean lan egitea sustatu. Helburua: Legazpiko baso- eta oihan-eremuen kudeaketa iraunkorragoa bultzatzea, horretarako ondoko neurriak hartuz:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Baso-kudeaketa iraunkorragoa lortzeko aholkuen eta jokabide onen berri eman eta horretarako dauden laguntzen gaineko informazioa eman.</li> <li>- Udalak landatu gabe dagoen baso-lurra eros dezala, lurzoru horretan bertako espezieak landatzeko.</li> <li>- Baso-pista gehiago zabal daitezela debekatu/mugatu eta horietatik dabiltzan ibilgailuen igarobidea kontrolatu.</li> <li>- Hazkunde laburreko espezieen landaketa udalerraren eremu indartsuenetara mugatu (edo, gutxienez, horren berri eman jabeei).</li> <li>- Legazpiko baso-eremuen bilakaera ikustaraztea ahalbidetuko duten adierazleen kalkulua eta jarraipena egin eta neurriak hartu (adibidez, baso-landareekiko bertako espeziei okupatzen duten lursail-proportzioa)</li> </ul>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<p>Ertaina</p> <p><b>Altua</b></p>	UD/NEK		-
<p><b>1.1.10. Legazpiko natur ingurunearekiko jokabide desegokien aurrean herritarren "salaketa" eta kontzientzia kritikoa sustatzea.</b></p> <p>Legazpiko natur ingurunearekiko jokabide desegokien edo erasoen aurrean herritarren "salaketa" eta kontzientzia kritikoa sustatu, jokabide horiek agerian gera daitezten eta horien aurka hartu beharreko neurriak har daitezten.</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<p>Laburra</p> <p><b>Altua</b></p>	UD/AL21		-

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 1- INGURUNEA ETA BIODIBERTSITATEA GORDETZEA ETA SUSPERTZEA

#### 1.1. LEGAZPIKO NATUR ONDAREA BABESTEVA ETA ZAINZTEA.

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<p><b>1.1.11. Jarduteko modu bat arautzea, baso-suteak ematen direnerako eta, batik bat, baserriak dauden inguruneetarako.</b></p> <p>Jarduteko modua arautu, baso-suteak ematen direnerako. Baserriak dauden inguruneetan sute-ahoak jartzeko aukerak aztertu</p>	□ □	Ertaina	UD/NEK	-	
		Ertaina			

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 1- INGURUNEA ETA BIODIBERTSITATEA GORDETZEA ETA SUSPERTZEA

#### 1.2. LEGAZPIKO NATUR ONDAREA ZABALTZEA ETA BALIOESTEA.

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<p><b>1.2.1. Legazpiko ondarearen eta kultura- eta natura-aniztasunaren gaineko Inbentarioa egitea.</b></p> <p>Inbentario horretan denetarik sartuko litzateke: mendiak, flora, fauna, hizkuntza, toponimia, tradiziozko nekazaritzako ohiturak, hezeguneak, iturburuak... eta ahal dela lehentasun-mailak adieraziz eta herri gisa galtzen utzi ezin dezakegun aberastasun, jakinduria eta memoria hori berreskuratzeko eta gordetzeko ekintzak sustatuz.</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Ertaina	UD/AL21		-
		<b>Altua</b>			
<p><b>1.2.2. Zabaltzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak garatzea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erreka eguna ibaia balioesteko ekintza gisa (jarraipena eman).</li> <li>- Natura gaitzat hartu eta argazki-lehiaketa eta/edo ikastaroa antolatu.</li> <li>- Legazpiko natur ondareari eta inguruneari buruzko argazki erakusketa, dauden errealitate egokiak eta hobe daitezkeenak erakutsiz.</li> <li>- Irteerak eta txangoak (ikastetxeekin koordinatuz).</li> <li>- Legazpin baso-lursailak dituzten jabeen artean lehiaketa antolatu, lursail horiek kudeatzeko jokabide egokiak sarituz.</li> <li>- Urola Garaian biodibertsitateari buruzko biurteroko lehiaketa sortu.</li> <li>- 2009-2010 ikasturtean biodibertsitatea aukeratu Eskola Agenda 21eko ardatz gisa, ikasturte horretan udalerrian ere gai horrekin lotuta dauden ekintzak sustatuz.</li> <li>- Aholkuak kontsumo iraunkorrari eta lehen sektoreari buruz.</li> <li>- Aldiro Zuhaitz eguna antolatu</li> </ul>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Laburra	UD/AL21		-
		<b>Altua</b>			

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 1- INGURUNEA ETA BIODIBERTSITATEA GORDETZEA ETA SUSPERTZEA

#### 1.2. LEGAZPIKO NATUR ONDAREA ZABALTZEA ETA BALIOESTEA.

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<p><b>1.2.3. Legazpiko natur aberastasuna ezagutzera emango duen materiala sortzea.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Inbentarioaren eredu erraz bat egin, herritarrei zuzenduko zaiena.</li> <li>- Legazpiko bide eta ibilbideen katalogoa.</li> <li>- Egutegiak, bideoak, multimedia tresnak...</li> <li>- Lekuan bertan seinaleak jarri (informazio-panelak,...</li> </ul>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<p>Ertaina</p> <p><b>Altua</b></p>	UD/AL21		-
<p><b>1.2.4. Natur ondarea kudeatzeari dagokionez, jokabide egokien berri ematea.</b></p> <p>Natur ondarea kudeatzeari dagokionez, jokabide egokien berri eman. Adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Udaletxeko Nekazaritza batzordean, Legazpiko baserritarrek aukera dute euren ezagutza eta proposamenak konpartitzeko.</li> <li>- Basozainekin eta/edo euren jarduerarekin natur ondarean eragina duten bestelako erakundeekin (adibidez, Iberdrola, basoan jartzen dituen goitentsioko zutabeak direla eta,...) lan pertsonalizatua egin daiteke.</li> <li>- Eskolako Agenda 21aren bidez ikastetxeekin egin daiteke lan</li> </ul>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<p>Ertaina</p> <p><b>Ertaina</b></p>	UD/NEK		-

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 1- INGURUNEA ETA BIODIBERTSITATEA GORDETZEA ETA SUSPERTZEA

#### 1.3. URAREN KALITATEA, AURREZPEN ETA ERABILERA EGOKIA HOBETZEA

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<p><b>1.3.1. Edateko uraren hornidura-sistemako hodiak etengabe berritzea.</b></p> <p>Urtero ura hornitzeko sareak berritzeko lanak egin.</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<p>Laburra</p> <p><b>Altua</b></p>	<b>UD/UR-KON</b>		-
<p><b>1.3.2. Hornidura-sarean egon daitezkeen ihesak aurkitzea eta konpontzea.</b></p> <p>Udalerrira hornitzen den eta fakturatzen den uraren artean alderik dagoen etengabe aztertu, banaketa-sarean ur-ihesak dauden antzemateko. "Gauoko gutxieneoak" bereziki aztertu, ur-ihesak antzemateko.</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<p>Laburra</p> <p><b>Altua</b></p>	<b>UD/UR-KON</b>		-
<p><b>1.3.3. Etxeko uraren kontsumoa gutxitzeko herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak.</b></p> <p>Kanpaina espezifikokoak egin; bisitaldiak Barrendiolako Ur Edangarria tratatzeko azterlekura (ETAP) eta eskualdeko Ur Zikinak arazteko azterlekura (EDAR).</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<p>Laburra</p> <p><b>Ertaina</b></p>	<b>UD/UR-KON</b>		-

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 1- INGURUNEA ETA BIODIBERTSITATEA GORDETZEA ETA SUSPERTZEA

#### 1.3. URAREN KALITATEA, AURREZPEN ETA ERABILERA EGOKIA HOBETZEA

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<p><b>1.3.4. Ur-ihesak dauden tarteetan edo euritako ura eta ur zikinak nahasten diren tarteetan saneamenduko hodiak etengabe berritzea.</b></p> <p>Urtero saneamendu-sareak berritzeko lanak egin.</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<p>Laburra</p> <p><b>Altua</b></p>	UD/UR-KON		-
<p><b>1.3.5. Lantegiak kolektorera isurtzen dutena etengabe kontrolatzea.</b></p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<p>Luzea</p> <p><b>Ertaina</b></p>	UD/UR-KON		-
<p><b>1.3.6. Iturburuak zaintzea.</b></p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<p>Ertaina</p> <p><b>Ertaina</b></p>	UD/UR-KON		-
<p><b>1.3.7. Udal instalazioetan ura aurrezteko eta modu egokian erabiltzeko neurriak hartzea.</b></p> <p>Orain arte burututako jarduketekin jarraitu (ur-jarioa eteteko deposituak, zurrusta-haustekoak...</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<p>Ertaina</p> <p><b>Ertaina</b></p>	UD/HIR/APAR		-

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 1- INGURUNEA ETA BIODIBERTSITATEA GORDETZEA ETA SUSPERTZEA

#### 1.4. LURZORUAREN KALITATEA HOBETZEA

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<p><b>1.4.1. Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak etengabe kontrolatzea.</b></p> <p>Lurzorua kutsa dezaketen jardueren mapa aintzat hartuta, Lurzoruaren Kalitate-agiria lortzeko helburua ezarri eta haien etengabeko kontrola eta jarraipena egin.</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Laburra  <b>Altua</b>	<b>UD/HIR/ARQ</b>		-
<p><b>1.4.2. Lurzoru degradatuak edo abandonatuak berriro erabil daitezela bultzatzea.</b></p> <p>Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak berreskuratu Azpikoetxen, Urtatzaolan, Brinkolan...</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Ertaina  <b>Ertaina</b>	<b>UD/HIR/ARQ</b>		-
<p><b>1.4.3. Urtatza parkea hobetzeko jarduketekin jarraitzea.</b></p> <p>Lurra bota, gimnasia egiteko pista egokitu, edateko ur-iturriak jarri ...</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Ertaina  <b>Baxua</b>	<b>UD/HIR/APAR</b>		-

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 1- INGURUNEA ETA BIODIBERTSITATEA GORDETZEA ETA SUSPERTZEA

#### 1.5. AIREAREN KALITATEA HOBETZEA

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<p><b>1.5.1. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailarekin harreman zuzena izatea, gorabeheren berri emateko.</b></p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<p>Laburra</p> <p><b>Altua</b></p>	<b>UD/HIR/APAR</b>		-
<p><b>1.5.2. Haurtzaroa eta Ingurumena proiektuan lan egitea.</b></p> <p>Urtero proiektuaren zati bat finantzatu, neurtzeko tresnak jartzeko aukerak erraztu, proiektuaren berri eman,... Airearen kalitateari buruzko datuak aztertu.</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<p>Laburra</p> <p><b>Ertaina</b></p>	<b>UD/AL21</b>		-
<p><b>1.5.3. Airearen kalitateari buruz herrian dagoen kezka berri eskualdean ematea eta konponbideak bilatzea.</b></p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<p>Ertaina</p> <p><b>Altua</b></p>	<b>UD/ALK</b>		-

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 1- INGURUNEA ETA BIODIBERTSITATEA GORDETZEA ETA SUSPERTZEA

#### 1.6. ZARATAREN KONTROLA

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<b>1.6.1. Enpresa berriei zarataren gaineko txostena eskatzea.</b>  Udalerrian ezarriko den eta zarata sor dezakeen jarduketari zarataren gaineko txosten bat egin dezala eskatu.	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Laburra  <b>Ertaina</b>	<b>UD/HIR/APAR</b>		-
<b>1.6.2. Zarataren udal kontrola.</b>  Bereziki zarata sor daitekeen lekuetan neurketak egin: ostalaritza, industria- instalazioak...	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Laburra  <b>Ertaina</b>	<b>UD/HIR/APAR</b>		-

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 2- KLIMA BABESTEKO ESTRATEGIAK EZARTZEA, MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO EREDUAK SUSTATUZ ETA ENERGIAREN KONTSUMO ARRAZIONALA BULTZATUZ.

#### 2.1. BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GAS-ISURKETAK MURRIZTEA: LEGAZPIN MUGIKORTASUN IRAUNKORRA PLANIFIKATU.

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<p><b>2.1.1. Legazpin Mugikortasun Iraunkorra sustatzeko Plana egitea.</b></p> <p>Diru laguntzak bilatu. Plana egin eta bertan herritarrek parte har dezatela bultzatu. Udal Osoko Bilkurak aipatu Plana onar dezala</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Laburra  <b>Altua</b>	<b>UD/AL21</b>		25.000,0
<p><b>2.1.2. Patrizio Etxeberria kalea 30. Area gisa egokitzea.</b></p> <p>Patrizio Etxeberria kalea 30. Area gisa egokitu, Mugikortasun Iraunkorreko Planean proposatutakoarekin bat etorritz.</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Laburra  <b>Altua</b>	<b>UD/HIR/APAR</b>		369.000,0
<p><b>2.1.3. Latxartegi kalea 30. Area gisa egokitzea.</b></p> <p>Kultur Etxea, Gizarte-zentroa, Osasun-zentroa,... dauden ingurua 30. Area gisa egokitu, Mugikortasun Iraunkorreko Planean proposatutakoarekin bat etorritz.</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Ertaina  <b>Altua</b>	<b>UD/HIR/APAR</b>		-
<p><b>2.1.4. Udalerrri barruan leku batetik bestera joatea erraztuko duen hiri-barruko autobusa jartzea.</b></p> <p>Autobusa jartzea bideragarria den aztertu. Diru laguntzak bilatu. Martxan jarri. Mugikortasun Iraunkorreko Planean proposatutakoarekin bat etorritz</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Ertaina  <b>Altua</b>	<b>UD/AL21</b>		-

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 2- KLIMA BABESTEKO ESTRATEGIAK EZARTZEA, MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO EREDUAK SUSTATUZ ETA ENERGIAREN KONTSUMO ARRAZIONALA BULTZATUZ.

#### 2.1. BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GAS-ISURKETAK MURRIZTEA: LEGAZPIN MUGIKORTASUN IRAUNKORRA PLANIFIKATU.

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<b>2.1.5. Laubide kalea oinezkoentzat egokitzea.</b> Mugikortasun Iraunkorreko Planean proposatutakoarekin bat etorritz.	□ □	Ertaina  <b>Altua</b>	<b>UD/HIR/APAR</b>		-
<b>2.1.6. Aizkorri kalean eta Juanastegi kalean bidegorria egokitzea.</b> Mugikortasun Iraunkorreko Planean proposatutakoarekin bat etorritz.	□ □	Laburra  <b>Altua</b>	<b>UD/HIR/APAR</b>	<b>DFG/DS/MA</b>	60.000,0
<b>2.1.7. Trafikoa antolatzeko oinarrizko ibilbidean bidegorria osatzea (Santikutz kalea ...)</b> Mugikortasun Iraunkorreko Planean proposatutakoarekin bat etorritz.	□ □	Ertaina  <b>Altua</b>	<b>UD/HIR/APAR</b>		-
<b>2.1.8. Kale Nagusia eta Nafarroa kalea oinezkoentzat egokitzea.</b> Mugikortasun Iraunkorreko Planean proposatutakoarekin bat etorritz.	□ □	Luzea  <b>Altua</b>	<b>UD/HIR/APAR</b>		-

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 2- KLIMA BABESTEKO ESTRATEGIAK EZARTZEA, MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO EREDUAK SUSTATUZ ETA ENERGIAREN KONTSUMO ARRAZIONALA BULTZATUZ.

#### 2.1. BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GAS-ISURKETAK MURRIZTEA: LEGAZPIN MUGIKORTASUN IRAUNKORRA PLANIFIKATU.

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<p><b>2.1.9. Igogailua Kultur Etxean.</b></p> <p>Mugikortasun Iraunkorreko Planean proposatutakoarekin bat etorritz.</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Luzea  <b>Altua</b>	<b>UD/HIR/APAR</b>		-
<p><b>2.1.10. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jarri udalerrien arteko bidegorriak egin daitezen.</b></p> <p>Legazpi eta Zumarraga-Urretxu udalerriak lotzeko falta den zatia bukatu. Mirandaola-Brinkola egokitu</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Luzea  <b>Ertaina</b>	<b>UD/HIR/APAR</b>		-
<p><b>2.1.11. Mugikortasun arloan dauden ohiturak aldatzeko sentsibilizazio-kanpaina.</b></p> <p>Herritarrak kontzientziatzeko kanpainak: leku batetik bestera oinez eta bizikletaz joan daitezen, garraio publikoa erabil dezaten, norberaren ibilgailua modu egokian erabil dezaten,.... Mugikortasun Iraunkorraren Europako Astearekin bat egin.</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Laburra  <b>Altua</b>	<b>UD/AL21</b>		-

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

**2- KLIMA BABESTEKO ESTRATEGIAK EZARTZEA, MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO EREDUAK SUSTATUZ ETA ENERGIAREN KONTSUMO ARRAZIONALA BULTZATUZ.**

**2.1. BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GAS-ISURKETAK MURRIZTEA: LEGAZPIN MUGIKORTASUN IRAUNKORRA PLANIFIKATU.**

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<b>2.1.12. Udalerrian berotegi-efektua eragiten duten gas-isurketak ezagutzea.</b>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Laburra	UD/AL21		-
Abiapuntua zein den eta dauden eta aplika daitezkeen aukerak ezagutu.		<b>Altua</b>			

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

2- KLIMA BABESTEKO ESTRATEGIAK EZARTZEA, MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO EREDUAK SUSTATUZ ETA ENERGIAREN KONTSUMO ARRAZIONALA BULTZATUZ.

### 2.2. BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GAS-ISURKETAK KONPENTSATZEA

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
2.2.1. Lursailak erostea bertako landareak landatzeko.	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Ertaina Ertaina	UD/NEK		-

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

2- KLIMA BABESTEKO ESTRATEGIAK EZARTZEA, MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO EREDUAK SUSTATUZ ETA ENERGIAREN KONTSUMO ARRAZIONALA BULTZATUZ.

2.3. KLIMAREN ALDAKETARA EGOKITZEA, HAREN ARRISKUAK TXIKIAGOTZEKO.

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<b>2.3.1. Legazpin klimaren aldaketara egokitzeko har daitezkeen neurri zehatzei buruz hausnartzea.</b>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Luzea	UD/AL21		-
Kanpoko aholkularitza bilatu egin daitezkeen ekintzak zehazteko.		<b>Baxua</b>			

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

**2- KLIMA BABESTEKO ESTRATEGIAK EZARTZEA, MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO EREDUAK SUSTATUZ ETA ENERGIAREN KONTSUMO ARRAZIONALA BULTZATUZ.**

**2.4. KLIMAREN ALDAKETARI ETA HAREN ERAGINARI BURUZ HERRITARRAK INFORMATZEA, SENTSIBILIZATZEA ETA PRESTATZEA.**

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<p><b>2.4.1. Proiektu berritzailea: Klimaren aldaketaren aurka borrokatzeko herritarren aldi bereko erantzukizunerako metodologia.</b></p> <p>IHOBEren proiektu berritzailean parte hartu. Legazpin aplikatu daitezkeen jokabide egokiak ondorioztatu</p>	□ □	<p>Laburra</p> <p>Ertaina</p>	UD/AL21		-

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 2- KLIMA BABESTEKO ESTRATEGIAK EZARTZEA, MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO EREDUAK SUSTATUZ ETA ENERGIAREN KONTSUMO ARRAZIONALA BULTZATUZ.

#### 2.5. ENERGIA-EREDU BERRIAREN BIDETIK: AURREZTEKO ESTRATEGIAK, ENERGIA-ERAGINKORTASUNA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK SUSTATZEA.

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<p><b>2.5.1. Legazpiko energia-hornidura hobetzeko aukerak aztertzea.</b></p> <p>EVE erakundearekin elkarlanean, Legazpin energia berriztagarriak garatzeko aukerak aztertu.</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Ertaina	UD/HIR/APAR		-
		<b>Ertaina</b>			
<p><b>2.5.2. EVE erakundearekin urteko hitzarmena sinatzea, energia-eraginkortasunerako sistemak sustatzeko eta udal eraikinetan eguzki-plaka fotovoltaikoak ezartzeko.</b></p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Laburra	UD/HIR/APAR		-
		<b>Ertaina</b>			
<p><b>2.5.3. CADEM-Aranzadi elkarteek energia-eraginkortasunari buruz eta kaleetan argiaren kutsadura saihesteko egin duten azterketatik atera diren jarduketak planifikatzea.</b></p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Laburra	UD/HIR/APAR		-
		<b>Ertaina</b>			

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

**2- KLIMA BABESTEKO ESTRATEGIAK EZARTZEA, MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO EREDUAK SUSTATUZ ETA ENERGIAREN KONTSUMO ARRAZIONALA BULTZATUZ.**

**2.5. ENERGIA-EREDU BERRIAREN BIDETIK: AURREZTEKO ESTRATEGIAK, ENERGIA-ERAGINKORTASUNA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK SUSTATZEA.**

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<p><b>2.5.4. Herritarrei informazioa eskaintzea, euren etxebizitzetan energia berriztagarrien instalazioak jar ditzaten.</b></p> <p>Informazioa eskaini: norbanakoei, bizilagunen elkarteei, teilatuak berritzeko lizentziak ematean,....</p>	□ □	<p>Ertaina</p> <p><b>Ertaina</b></p>	UD/AL21		-
<p><b>2.5.5. Udal eraikinetan energia-eraginkortasuneko azterketak egitea.</b></p>	□ □	<p>Ertaina</p> <p><b>Altua</b></p>	UD/HIR/APAR		-
<p><b>2.5.6. Udal eraikinetan energia berriztagarrien erabilera poliki-poliki sartzea.</b></p>	□ □	<p>Ertaina</p> <p><b>Ertaina</b></p>	UD/HIR/APAR Nagusia		-

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 3- KONTSUMO ETA EKOIZPEN ARDURATSUAK SUSTATZEA.

#### 3.1. KONTSUMO IRAUNKORRA

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<p><b>3.1.1. "JAKIN": kontsumitzaileak ezagut dezala.</b></p> <p>Kontsumo iraunkorraren Euskal Planarekin bat etorritz, erosteko erabakiek ingurumenean eta gizartean izan ditzaketen ondorioen berri herritarrei emateko kanpainak martxan jarri. Gai horiek eskualdeko familiekin lantzeko GAP programa martxan jarri</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Laburra  <b>Altua</b>	UD/AL21		-
<p><b>3.1.2. "NAHI": kontsumitzaileak nahi izatea.</b></p> <p>Kontsumo iraunkorraren Euskal Planarekin bat etorritz, kontsumitzeko era iraunkorragoak hartzearen alde sentibilizatzea da helburua. Sentsibilizazio kanpainak egin, garapen iraunkorarekin bat datozen kontsumitzeko erak bultzatzeko: jokabide osasungarriak saritu eta bestelako jokabideak aldatzeko balio dezatela bultzatu; kontsumismotik aldentzeko diren balore berrien alde sentibilizatu, gizartean jokabide iraunkorragoak baliagarriagoak izan daitezen...</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Ertaina  <b>Altua</b>	UD/AL21		-
<p><b>3.1.3. "AHAL": Kontsumitzaileak ahal izatea.</b></p> <p>Modu errazean eta lehiakorrean, merkatuan produktu iraunkorragoak egon daitezela bultzatu. Produktu organikoak, etiketa ekologikoa dutenak, bidezko merkataritza. Legazpin egindako produktuak kontsumitu. Aisialdiko baratze ekologikoak jartzeko guneak egokitu. Bigarren eskuko gauzen azoka txikiak. Jai iraunkorrak</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Ertaina  <b>Altua</b>	UD/AL21		-

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 3- KONTSUMO ETA EKOIZPEN ARDURATSUAK SUSTATZEA.

#### 3.2. EKOIZPEN IRAUNKORRA

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<p><b>3.2.1. "Udala-enpresa ekintza-planak" proiektua garatzea.</b></p> <p>IHOBE, UGGASA eta UGISA erakundeekin elkar lanean eskualdeko enpresen egoerari buruzko diagnostikoa egin, honakoak jasoz: lizentziak, energiaren eta uraren kontsumoak, ingurumen-kudeaketa,.... Ondoren, ekintza-plan bat egin eta aurrera eraman.</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Laburra  <b>Altua</b>	UD/AL21		-
<p><b>3.2.2. Enpresetan ingurumena kudeatzeko sistemak ezar daitezela sustatzea.</b></p> <p>Legazpiko enpresetan ingurumena kudeatzeko sistemak ezar daitezela bultzatu (kanpainak eginez, hitzaldiak, diru-laguntzak...)</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Ertaina  <b>Ertaina</b>	UD/AL21		-

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 3- KONTSUMO ETA EKOIZPEN ARDURATSUAK SUSTATZEA.

#### 3.3. HONDAKINAK

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<p><b>3.3.1. Sentsibilizazio-ekintzak egin, batik bat hondakin gutxiago sor daitezela kontzientziatzeko.</b></p> <p>Hondakin gutxiago sortzeko eta gaikako zabor-bilketarako instalazioak erabiltzeko herritarrak sentsibilizatu: hondakin gutxiago sortzeko aholkuak, produktuak konpontzeko zerbitzuen gida, berriro erabil daitezkeen poltsak, erosketetarako orgak ...</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Laburra  Altua	UD/SASI ETA		-
<p><b>3.3.2. Hondakinak tratatzeko zentroetara bisitak programatzea.</b></p> <p>Bisitak programatu: Garbigune, ontziak hautatzeko planta, Sasietako zabortegia eta Biosasieta.</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Laburra  Altua	UD/SASI ETA		-
<p><b>3.3.3. Hiri-hondakinen zati organikoarekin konpost egiteko plana.</b></p> <p>Etxebizitzetan jasotzen diren hiri-hondakinen zati organikoa biltzen hasi (2010 urte inguruan): kanpainak diseinatu, edukiontzi-kopurua kalkulatu, borondatezko pertsonak hartu,... Asteroko azokan hiri-hondakinen zati organiko horiek jasotzeko aukera eskaini, horrekin konposta egiteko</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Ertaina  Altua	UD/SASI ETA		-
<p><b>3.3.4. Hondakinak biltzeko zerbitzua arautuko duen araudia idaztea.</b></p> <p>Bilketa arautuko duen araudia egin: ordutegiak, zerbitzua nola erabili ...</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Ertaina  Ertaina	UD/SASI ETA		-

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 3- KONTSUMO ETA EKOIZPEN ARDURATSUAK SUSTATZEA.

#### 3.3. HONDAKINAK

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<p><b>3.3.5. Garbiguneen sarea erabiltzea ontzi fitosanitarioak biltzeko.</b></p> <p>Garbiguneetan hainbat produktu bereziren bilketa egiteko edukiontzi bereziak jarri: ontzi fitosanitarioak, siloen plastikoa, bidoiak,...</p> <p>Zerbitzuen berri eman herritar orori eta, batik bat, baserritarrei</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Ertaina	UD/SASIETA		-
		<b>Ertaina</b>			
<p><b>3.3.6. Hondakin industrialak, merkataritzakoak eta hiri-hondakintzat har daitezkeen erakundeetako bestelako hondakinak biltzea eta balioztatzea, batik bat industria-poligonoetan.</b></p> <p>Kartoia eta egurra jaso dadila sustatu; hondakin industrial geldoen eta hondakin arriskutsuen kudeaketa zuzena bultzatu.</p> <p>Informazio kanpainak egin eta edukiontzietan uzten diren materialen gertuko jarraipena egin</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Ertaina	UD/SASIETA		-
		<b>Altua</b>			
<p><b>3.3.7. Erabilitako olioak biltzeko sistema hobetzea.</b></p> <p>Aurreikusita dago etxebizitzetan erabilitako olio-poteak jasotzeko edukiontzi bereziak kalean jartzea (2009. urte inguruan).</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Ertaina	UD/SASIETA		-
		<b>Ertaina</b>			

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 3- KONTSUMO ETA EKOIZPEN ARDURATSUAK SUSTATZEA.

#### 3.3. HONDAKINAK

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<b>3.3.8. Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak aprobetxatzeko helburuarekin eskualde mailako estrategia diseinatzea.</b>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Ertaina	UD/SASIETA		-
Gaur egun, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak zabortegean botatzen dira. Hondakin horiek tratatzeko estrategia bat garatu nahi da, tratamendu horretatik sortuko diren agregatuak lehengai gisa erabili ahal daitezen trinkotze-lanetan, betelanean, bideetan, drainatze-lanetan		Altua			

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 4- HIRI-EREMUAREN KALITATEA HOBETZEA AHALBIDETUKO DUEN HIRIGINTZA HARMONIKOAREN ALDE EGITEA.

#### 4.1. PROIEKTUEN URBANIZAZIOAN ETA ERAIKUNTZAN GARAPEN IRAUNKORRAREN IRIZPIDEAK PROPOSATZEA.

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<p><b>4.1.1. Urtatzola eremuaren urbanizazioan eta eraikuntzan garapen iraunkorraren irizpideak erabil daitezela proposatzea.</b></p> <p>ORUBIDE eta VISESA sozietate publikoei ondoko proposamena egin: Urtatzola eremuaren urbanizazioan eta eraikuntzan garapen iraunkorraren irizpideak erabiltzea, proiektu eredugarria izan dadin.</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<p>Ertaina</p> <p><b>Altua</b></p>	UD/HIR/ARQ		-
<p><b>4.1.2. Lekuona-Azkuenea eremuko industrialdearen urbanizazioan eta eraikuntzan garapen iraunkorraren irizpideak erabil daitezela proposatzea.</b></p> <p>IHOBE eta SPRILUR erakundeak elkarrekin garatzen ari diren metodologiaren balidazioa frogatzeko kasu praktikotzat har dadila proposatu.</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<p>Luzea</p> <p><b>Altua</b></p>	UD/ALK		-
<p><b>4.1.3. Eraikuntza- eta urbanizazio-lanak arautuko dituen ordenantza egitea.</b></p> <p>Datozen urteotan egingo diren eraikuntza- eta urbanizazio-lanek bete beharko dituzten irizpideak finkatuko dituen ordenantza egin eta onartu.</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<p>Ertaina</p> <p><b>Altua</b></p>	UD/HIR/ARQ		-

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 4- HIRI-EREMUAREN KALITATEA HOBETZEA AHALBIDETUKO DUEN HIRIGINTZA HARMONIKOAREN ALDE EGITEA.

#### 4.1. PROIEKTUEN URBANIZAZIOAN ETA ERAIKUNTZAN GARAPEN IRAUNKORRAREN IRIZPIDEAK PROPOSATZEA.

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
<p><b>4.1.4. Udal igerilekuaren eguneroko hustuketaren ur-isurketari konponbidea aurkitzea.</b></p> <p>Ur hori kolektorera isurtzeko aukera aztertu.</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<p>Ertaina</p> <p><b>Altua</b></p>	UD/KIR		-
<p><b>4.1.5. Futbolzelaiko aldageletan eguzki-energia aprobeztatzea.</b></p> <p>Futbolzelaiko aldagela berrietan dutxako ura berotzeko eguzki-plaka termikoak jartzeko aukera aztertu.</p>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<p>Laburra</p> <p><b>Ertaina</b></p>	UD/KIR		-

## EKINTZA-PLANAREN LABURPEN-TAULA

### 4- HIRI-EREMUAREN KALITATEA HOBETZEA AHALBIDETUKO DUEN HIRIGINTZA HARMONIKOAREN ALDE EGITEA.

#### 4.2. OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA

EKINTZA	EP-AN AURREIKUSI GAB. ILDO/EKINTZA	EPEA/LEHENT ASUNA	ERANTZUKIZUNA	FINANTZIAZIOA	KOSTUA, GUZTIRA (€)
